

DIRU SARRERAK

Enpresa bat sortzeko egin behar den lehenengoa inbertitzea da, baina inbertitzeko dirua izateko diru-sarrerak bilatu behar dira. Guk, lehenik eta behin, enpresaren partaidetzako bakoitzak 3.000 euro ipiniko genuke gure negozioa hasteko eta horren ondoren 80.000 euroko mailegua eskatuko dugu banketxean inbertsioak ordaintzeko; gainera, Administrazioako diru laguntzak lortzen saiatuko gara, autonomoei diru-laguntzak emateko programetako baten bidez.

Edozein enpresaren diru-sarrerak ezinbestekoak dira enpresaren biziraupenerako. Tech4all enpresaren diru iturri nagusiak produktuen salmentak dira, adibidez: ordenagailuak, mugikorrak, ordenagailuentzako piezak.... Honez gain eskaintzen dituen zerbitzuak ere sarrerak ekarriko dizkio adibidez: objektu elektronikoen konponketak, eskaintako kurtsoak, etxez etxeko zerbitzu teknikoa etab.

